

- III. Udako Argazki Lehiaketako albuma
- **Entzutekuak:** Saharari buruzko argazki erakusketaz

soraluzeko
hamabostekaria **206.** alea
2009ko urriaren 2an

Pila-Pilean



MARTIN ARLUZIAGA,
Txiletik unibertsoa zaintzen

SAHARA

loreak basamortuan



basamortuan kle

Egitaraua

Urriaren 2tik 11ra:

ARGAZKI ERAKUSKETA

"Sahara, loreak basamortuan" Klemente M. Corredera
Oreka Art Aretoan (Gabolatz kalea 28)

Astegunetan: 18:30-21:00 Asteburuetan: 12:00-14:00

Urriak 2, barixakua:

Argazki erakusketa inaugurazioa eta luntxa
Arratsaldeko 19:30ean, Oreka Art Aretoan

Urriak 6, martitzena:

Te Tertulia, "Saharar herriaren egoera"
Arratsaldeko 19:30ean, Oreka Art Aretoan

Urriak 8, eguena:

Zinea: "El Sahara no se vende"

Arratsaldeko 19:30etan udaletxeko saio
aretoan

Urriak 10, zapatua:

Eguerdiko 12:00etan Plaza Zaharrear:
Henna tailerra, haur eta gaztetxoentzat.

Eguerdiko 13:00etan Plaza Zaharrear:

Maliko musika tailerra "Batu" eta
ondoren, kus-kus dastaketa.

Arratsaldeko 18:00etan, liburutegiko atarian:
Magia ikuskizuna "Zaki magoa"



MAITE ETXEBERRIA




OSKAR ELIZBURU

MOMENTUAN

Aupa Oskar aspaldiko! Zer moduz bizi Ahaiz Arrasate aldean?

Aldizkarian kolaborazioa egiteko gonbidapena jaso genuenean, txikitako gure kontuei buruz jardutea pentsatu najuan, Txurrukene-ko erreka ondoan eta Salonazpi inguruan jolasean emandako sasoiak gogora ekartzea, baina horretarako gero be astia izango dogula eta, beste zeozi heltzea hobe izango zala bururatu jatan.

Eta zeri? Gu oso trebeak izan gai -ttuk beti mundua konpontzen, hau eta bestea egin beharko litzake honi buelta emateko, eta hortxe galdera: zeri oratu egunero bizitzari aurre egiteko?. Nire lagun batek esaten daben moduan duda barik, momentuan momentua bizi behar da, gertatutakoari itsatsita geratu barik, eta etorriko denarekin obsesionatuta bizi barik. Bizipena gustukoa izan edo mingarria izan, momentuan momentua bizi, sentitu, eta laga pasatzen. Lagunekin barixakoetan astea erreparatu, erreka hotsa entzun eta karga astunak alboratu, lokutorioaren kristal ostetik 40 minutuak gozatu, maite dituanak maitatu, hirekin aspaldi euskara ikasten ibili ziranekin euskaraz mintzatu, mendigaineko belarra oinetan sentitu, kaltegarria dena aldatu, gutxi batzuen eskuetan dena egon ez dadin buruari eragin,... Hik zer egiten dok? Badaukak trukorik? 

“
Zeri oratu egunero bizitzari aurre egiteko?

Maite Etxeberria

Lagunei bihotzeko sokekin oratu

Oskar Elizburu


”

Epa, Maite! Aspaldikuak, benetan, Txurrukene gozatutakuak! Dana dala, bihotzian, goxogoxo, gordetako arantza eta lore hórrek guztixekin batera bizi bihar izaten jittunauz egunerokuak be.

Momentua bizi! ei jiñon hire lagun -min horrek, ez don lelo txarra; baiña, badakin, danak jaukan bere aldapia. Momentua bizi horrek tranpatxo bat daukalakuan najaon ni. Momentua bizi bihar bajonau, ezin aurreikuspenik egin, ezin mendi- ibilbidia zelakua eukiko dogun begiratu eta datorrena datorrela ekin biharko jotsanau bidia-ri Horregaittik, inprobizaziñuarekin batera, ibilbidiaren tamaiña eta gogortasuna neurtzeko eta gozatzeko parajiak edo gertu egon leizkenak albo batian ez lagatzeko ahalegiña egin biharra jaon.

Eguneroko bizipenak momentuan gozatu bihar dirala argi jaukanat neuk be (*errekako aingiria harrapatzia erabakitzean, billa gabizenian, izkutalekua ikustian, esku kolpia botatakuan, eskuetan hoztasuna sentitzian, oratutakuan, mugittu eta labaindutakuan, harrapatutakuan eta, zergaittik ez, ihes egindakuan be bai*). Bizitzako egoera guztixetan helburu eta ibilbide jakin-samar batekin jokatu bihar dogulakuan najaon; horrela eginda be, makinabat bider, aingirak hies egingo joskun eta.

Dana dala, lagunak bihotzeko sokekin lotu eta, beti, gertuan euki; horrek laguntzen jon eta, benetan, bizitzan aurrera egiten.

Musu haundi bat. 

Goguan hartzeko

Ametsik gabeko bizia, izarrik gabeko gaua
Euskal atsotitza



GUTUNAK

Gazteñerre azokaren eguneko azalpena

AZALPENA:

Gazteñerre Eguna Animen Egunetik (*azaroaren 2an*) kontatzen hasita bigarren astelehenean izaten da. Azoka Gazteñerre Egunaren aurreko zapatuan egiten da eta hori beti da azaroko bigarren zapatua. Beti.

Pil-pileanek eta Kontrargik etaratako egutegixan oker dago, Gazteñerre Eguna Domusantu Egunetik (*azaroaren 1a*) kontatzen hasita bigarren astelehena zala pentsatuz kalkulatu gendualako.

Eibartarrak itxura danez, Domusantu Egunetik kontauta egin izan dabe eta horregaittik batzuetan Plaentxian 3. astelehenian egin izan da eta Eibarren 2. astelehenian.

PIL-PILEAN EUSKARA ELKARTEA

GAZTEÑERRE AZOKA

azaroaren 14an izango da.

GAZTEÑERRE EGUNA

azaroaren 16an izango da.

Eskerrak ematen

Mesedeetako Jai Batzordeak, Errekalde 24-26, laguntza eman duen guztiari eskerrak eman nahi dizkio. Eurak barik, gure jai maitea ospatzea ezi-nezkoa bailitzateke.

MESEDEETAKO JAI BATZORDEA

PIL-PILEAN EUSKARA ELKARTEKO HELBIDE ELEKTRONIKO BERRIAK:

Elkarteko kontuetarako: **koordinazioa@pilpilean.com**

Aldizkariko kontuetarako: **aldizkaria@pilpilean.com**

Publizitate kontuetarako: **publizitatea@pilpilean.com**

Euskara kontuetarako: **euskara@pilpilean.com**

Plaentxia.com-eko kontuetarako:

plaentxia@pilpilean.com

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

 pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04
e-maila: aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** Arianne Unamuno, Egoitz Unamuno, Enara Agirre, Jon Basauri eta Aitor Madrid **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz
Diseinua eta maketazioa: Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop.
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563
Lege-gordailua: SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik

Carmele Ortueta

Bizitzako ittulan

Nere sorburua baserrixan izan da eta ezagutu doten unibertsitatea be bertan. Ittulan ondo ikasi genduan. Eskolan galderia, “¿como no has venido a la escuela?” eta gehixenetan erantzuna... “porque tenia que hacer en ittula” izaten zan.

Garai haietan, dana eskuz eta gauduan laguntzaz egitten genduan. Ittularixa idixen aurretik soroko arrastuari zuzen jarraitzeko bide erakuslia izaten zan. Atzian tokatzen zan lanabesari, goldia, burdinera edo zanari helduta juaten zan. Langintza hau ardatz hartuta gaurko agintarixak eta politikuak jorratu nahi dittut. Agian merezi doguzenak izango dittugu, baina ze klase, ze piura... arazoak berba eginda konpondu biharrian akuilua jasotzen besterik ez dakixe. Idixak... nunguak ostera? Gure basarrietako “herri idi” haren partez, bertan sortu, idiskotu eta idi bihurtutako harek, patxada edarrian eta zuzen jarraitutako zotsen arrastuari. Negu atarixan, garixak ereitako lehenengo hotzekin egunsentixan zurmintzetatik etaratzen zeben lurrinak Altos hornos-ko tximinixak zirudixela. Lasai-lasai harutz eta honutz “itzulian” jardungo zeben.

Gure agintarixak berriz, eurak arrastotik kanpora eta beste batzuek sartu nahixan. Ez da berandu eta esnatu gait-tian! Umekerixetan ibiltziari laga eta gure benetako izaeria arnastu deigun! Elkar maitte dogunok elkartu gaittezen lur berri emankor bat egitteko. Bestela artuak erein baino lehen, artaburuak jasoko dittugu.

(((ENTZUTEKUAK)))

Klemente Manuel Saharari buruzko ekimenen antolatzaile

Clemente Manuel Corredera 38 Curteko ermuarra da. Argazkilarixa da afizinoz. Gaurtik hasi eta urrian 11ra bittartian Saharan inguruko argazki erakusketan bat zabalduko dau Alberto Ramirezek Gabolatzen kalia zabaldu barri daben Oreka Art aretuan.

Zegaittik Sahara?

5 urte dira, uda partian Mahmud izeneko ume saharar bat etxian hartzen dogula eta honen harira, 2007ko abenduan bera eta bere familixia ezagutzeko bidaia egin genduan Saharako herrialdera. Hain izan zan esperientzia aberatsa, berriro bueltatu ginan 2009ko Aste Santuan. Oinguan baina, argazki kamaria eruan genduan eta argazki honek dira erakusketan ikusi ahalizango doguzenak.

Zer da zehazki erakusketan ikusiko doguna?

9 egun emon genduzen Tinduf-eko basamortuan (*Argelian*) eta bertako esperientziak jaso doguz argazkixen bittartez. Pertsonak, kanpamentuen panoramikak eta bertako bizimodua agertzen daben argazkixak osatzen dabe erakusketia. Aipatzekua da, Marokoko agintarixak ezarritako 2.000 kilometroko harresixa ikusteko egin genduan irteeria. Harresi honek, sahararren mugak ezarri ditu eta horma osua minaz beteta dago. Ezin dabe, ezelan be, lurraldetik urten.

Zelako egoeria bizi dau herri sahararrak?

34 urte daroiez beren lurretatik kanpo, Tinduf-eko (*Argelian*) de-

sertuan erdixan, ahaztuta. Inork ez dau Saharako lurraldia beregain hartzen; ez Marokok, ez Frantziak ezta Espainiak be. Ofizialki ez dake lurralderik, Marokok 1975. urtian beren lurra okupatu zittuanetik. 200.000 sahararrek gizarte laguntzen bittartez egin dabe aurrera, baina ez da nahikua.

Erakusketia zetarako?

Aipatutako dana salatu eta gizarte kontzientzia sortzeko. Sahara herrialdean aldarrikapena lortu bihar dogu, eta presino sozialan bittartez beren lur aberatsak berreskuratzen lagundu ahal dotsegula uste dot.

Eta zela?

Pixkaka-pixkaka politikari eta agintarixak Saharako egoeria hobetzen lagundu leikie. Marokoko agintarixeri presino internazionala egin bihar jakue, eta hau herriretako udal gobernuen kolaborazinuakin hasiko da. Bestela be, jana, erropia eta modu danetako laguntzia ondo etorriko jakue. Ia danon artian Sahara aske bat aldarrikatzia lortzen dogun! ☞

200.000 saharar, gizarte laguntzen bittartez aurrera

**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**


Hotzian eta beruan jotako tornilluak

**Errekalde 21
20590 SORALUZE**T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61**HNOS. BENITO
ANAIAK**Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoak konpromisorik gabeT. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Saharari elkartasuna adierazteko argazkiak, tea eta gehiago

Klemen Correderek Saharan bizitakoa argazkietan islatu du eta barixakutik aurrera “Basamortuko loreak” erakusketa ikusgai izango da Oreka Art are-

to berrian. Astegunetan 18:30etatik 21:00etara bitartean egongo da zabalik eta asteburuan 12:00etatik 14:00ra. Horrez gain, egitarau zabalantolatu dute Sahararen alde Sorluzeko Udalaren babesarekin:



Barixakua 2

“Basamortuko Loreak” argazki erakusketaren irekiera

Oreka Art erakusketa aretoan, Gabolats kalea 28.

Martitzena 6

18:30etan Te tertulia Oreka Art-en.

Eguena 8

“El sahara no se vende” filmaren emankizuna.

Zapatua 10

12:00etan Henna tailerra.

13:00ean Kus-kus dastaketa.

18:00etan Magia ikuskizuna.

UEUK udazkeneko ikastaroak aurkeztu ditu

Arlo desberdinetako hamabost ikastaro aurkeztu ditu UEUK datozen hilabeteetarako.

Eibarko Markeskoa Jauregian eman- go diren ikastaroak hauek dira:

- Ordenagailuz lagundutako itzulpena.
- Ingurugiroa ezagutu. GPS eta GIS baliabideak.
- TELP tailerra.
- Proiektuen kudeaketarako teknika berriak.
- Jabetza intelektuala eta teknologia berrien eragina.
- Ikus-antropologia. Antropologia ikusgarrirantz.
- Komunikazio eraginkorren arte (II. modulua)
- Tantra: maitasunaren atea. Informazio gehiago: markeskoa@ueu.org edo **943 82 14 26**

Baserritar gazteen martxa

Urriaren 23, 24 eta 25ean baserritar gazteen martxa antolatu du Akuilu taldeak. Gazte martxa hau Azpeitiatik Durangora izango da eta bertara deitzen eta gonbidatzen dituzte baserrian bizi direnak, baserrian hasi berriak direnak eta kale- tik baserrira etorri nahi duten gazte guztiak. Informazio gehiagorako: baserritargazteak@gmail.com edo **646 44 17 69** telefonoan.

Margoketak egin dituzte Sole del Bosqueren etxe atarian

ETAren aldeko eta PSOEren eta Ertzaintzaren aurkako pintaketak agertu dira Soledad del Bosque zinegotzi sozialistaren etxe azpian. Uda- letxean eta kiroldegian ere agertu dira antzeko pintaketak.

29 urte eta gero hirukiak

Ortzi, Naroa eta Egoitz hiruki eder hauek abuztuaren 18an jaio ziren. Oregi anaiak dira herrian jaiotako azken hirukiak, 1980ko abuztuaren 16an. Zorionak Fran eta Amaia, eta ondo etorri txikiak!. Familiak urte pare baterako norbaitek etxe handi xamar bat uzteko edo trukatzeko eskaera egin du.





SAN ANDRES

ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46



MENDIZABAL

okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Zeletara igotzeko eskailera berriak



Laster herriko saihebidetako bideetako bat behin betiko aparkaleku bihurtuko da eta herritarrentzat Zeleta kalera irisgarritasuna hobetu nahian, udalak eskailera berriak egiten dihardu, saihebidetik Zeletako zubi ondora joango direnak. Saihebidetan 172 aparkaleku egongo direla aurreikusten du Udalak.

Memoria historikoa berreskuratzeko lehenengo bilera

Herriko Memoria Historikoa berreskuratzeko lehen bilera datorren astelehenean egingo da, hilak 5 arratsaldeko 19:00etan udaletxeko batzar aretoan. Lehen saio honetan, lantaldia osatu eta Soroluzen gerra sasoiaren gertatutakoaren berri emateko pausak zein izango diren zehaztuko da.

KZgunea eguenetan zabalik

Herriko KZguneak urrian ordutegi berria izango du. Irailean bezala eguenetan egongo da zabalik baina ordutegi berriarekin. Urriaren 8an, 15ean, 22an eta 29an zabalduko dituzte ateak, goizeko 9:00etatik 13:00etara bitartean.

Presoen kartelak kendu dituzte

Hilaren 23an Ertzaintzak Soroluzeko Gaztelupe tabernako presoen aldeko kartelak kendu eta jabea identifikatu zuen. Tabernako jabeak azaldutakoaren arabera, kartelak sarrerako atean itsatsirik zeuden eta herriko preso politikoen irudiak agertzen ziren bertan, Plaza Barrian margotuta zegoen hormairudi bera, zehazki.

Udaleko berdintasun plana arlo guztietara zabaltzen



Hilaren 23an aurkeztu zen Hemakumeen eta gizonen berdintasunerako lehen plana, 2009-2012 bitartean Udalak Soroluzen ezartzea aurreikusten duena. Joana Azpitarte, Berdintasun Teknikariak eta Larraitz Lakuesta, Emakume Saileko batzorde buruak, Soroluzerako sexuen arteko berdintasunerako lehen plana aurkeztu zuten. Planaren egituraketa azaldu zuten eta arloz arlo ipiniko diren helburu eta ekintzak esplikatu. Esku-hartzeko eremuak modu honetan banatzen dira: Udala, kultura eta kirola, hezkuntza, lana,

gizarteratzea eta osasuna eta hirigintza.

Berdintasun planaren aurkezpena

Urriaren 7an bozkatuko da plana

Orain soroluzetarrek 15 eguneko epea dute ekarpenak egiteko, eta behar bada, luzatu egingo da denbora tartea. Gero, batzordetik pasako da eta azkenik, urriaren 7ko Udal Batzarrerera eramanngo da plana, bertan bozkatu eta onartzeko.

Planaren zirriborroa eskuratzeko, udaletxera jo edo **berdintasuna@soraluze.net** helbidera mezu bat idatzi. ✉

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**

ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

Aras

DIN arauak jarraituz
eta zehaztasun handiz egindako torniluak

T. 943 75 17 36 / 18 03
F. 943 75 22 95

Industrialdea 20 - 21
50 Posta Kutxatila
20590 Soroluze

Soraluzeko aditzak • gidaliburu baten

Arianne eta Egoitz Unamunok Soraluzeko aditzen liburuxka osatu dute eta Badihardugu Euskara Elkarteak argitaratu du Soraluzeko Udalaren laguntzarekin. Ikastetxeko eta euskaltegiko irakasleendako, euskara ikasleendako eta euskaraz bizi nahi duen edozein plazentziarrendako gidaliburu egokia dela uste dute egileek. Herrian aditzen inguruan dagoen nahasmena argitzeko lagungarri izatea nahi lukete egileek. Aste bi barru aurkeztuko dute.



LIBURUXKAREN DATUAK

ORRIALDEAK: 18

EDUKIA: Indikatiboa, baldintza, ahalera, subjuntiboa eta aginterako aditz-taulak, besteak beste.

ITURRIAK: Josu Izquierdok jasotako aditzen bilduma eta San Andres auzoko 6 hiztunen testigantzak.

PREZIOA: 3 euro. (Pil-pilean Euskara Elkarteo bazkideek doan jasoko dute).

SALTOKIA: Pil-pileanen, Udaletxean eta Iratxo Goxodendan.

AURKEZPENA KAPILLAN

EGUNA: Urriaren 15a, eguna

ORDUA: 19:00etan

LEKUA: Kapillan

HIZLARIAK: Arianne Unamuno, Egoitz Unamuno eta Mikel Santiago

GONBIDATU BEREZIAK: Josu Izquierdo eta Santos Izagirre irakasleak eta San Andres auzoko hiztunak.

OHARRA: Aurkezpenera datorrenak liburuxka jasoko du opari.

Arianne eta Egoitz aditz taulak osatzen lagundu dieten hiztunekin batera.



Zulotik
begira

IKASTURTE HASIERA

Irailarekin batera gure institutua martxan jarri da. Ikasturte guztietan bezalaxe, aurten ere aldaketa batzuk izan ditugu: irakasle berriak, ikasleak berriak, leku aldaketa lehenengo mailakoentzat eta, nola ez, ditxosozko "A gripea" delakoa. Hau dela eta, laugarren mailako ikasle batzuek aldizkarirako inkestatxo bat egin diote maila bakoitzeko bi ikasleri.

- | | |
|---|---|
| 1. Zer moduz klase hasiera? | 3. Irakasle berririk bai?
Zer moduz beraiekin? |
| 2. Izango zenuten "A gripea"ri buruzko informaziorik. Izan da zuen gelan kasuren bat? | 4. Eta ikaslerik? |
| | 5. Nolakoa espero duzu ikastaro hau? |

1. MAILA

Andrea Blanco:

1. Ondo.
2. Bai, kasu bat izan dugu.
3. Ondo.
4. Ondo.
5. Psss, besterik gabe.

Jose Antonio Romero:

1. Ondo, baina kostatu egiten da.
2. Bai, bi kasu.
3. Oso txarto.
4. Ondo, oso majuak direlako.
5. Ondo, baina irakasle batzuekin ez naiz ondo konpontzen.

2. MAILA

Ana Prol

1. Psss, besterik gabe.
2. Uste dugu bat egon dela baina ez dakigu ziur.
3. Psss, besterik gabe, oso txapak dira.
4. Ondo, oso guapuak dira.
5. Aurrekoa baino errazagoa izatea.

Nerea Iñarra:

1. Ondo.
2. Guk dakigula, ez.
3. Nahiko ondo.
4. Berdin, ondo.
5. Ona, aurrekoa baino pixkat zailagoa izango.

3. MAILA

Ivan Mendez

1. Ondo, baina kostatu egiten da.
2. Ez daki, somatzen du batek baduela.
3. Ondo, oso ondo esplikatzen dute.
4. Ondo, oso jatorrak dira.
5. Normala izatea, guztiak bezalako.

Xabi Bengoa

1. Ondo, baina kostatu egiten hastea.
2. Bai, 2 edo 3 pertsonak, baina ez daki ziur.
3. Gaizki, bat edo beste txapa.
4. Ondo, nahiz eta ez dudan erlazio hadirik beraiekin.
5. Iaz baino zailagoa.

4. MAILA

Mikel Ramos

1. Psss, besterik gabe.
2. Bai, bat.
3. Ondo, baina hobeto betikoekin.
4. Ondo, baina aurretik ezagutzen genituen.
5. Psss, besterik gabe.

Marta Romero

1. Ondo.
2. Bai, bi
3. Bai, baina bat plasta bat da.
4. Oso ondo, errepikatzailea da.
5. Besteak baino errezagoa izatea.





MARTIN ARLUZIAGA

“1969xan ilargixakin komunikatu ginan”

Martin Arluziaga Txilen jaixua bada be, bere aitta soraluzetarra zan. 1901ian, bere anaiakin Buenos Airesera jua zan, eta handik Txilera bertan bizimodua egitteko. Ingenieri elektronikua ofizioz, NASAk eta Txileko Unibersidadiak akordio baten bidez sortutako estaziño baten lan egin dau urtietan, araketa-sistemen estazino baten. Historiako pasarte garrantzitsuenak ber-bertatik bizittakua da.

Zuen aitta eta osaba, plaentxiarrak bixak, 1901ian Ameriketara jua ziran.

Arluziaga abizeneko jende asko dago Txilen, eta dan-danak datoz Soraluzetik, nere aitta eta osabagandik. Gu hiru anai-arreba gara, Santiagon hazi ginan eta gaur egunian lau seme-alaba daukadaz, munduan Soraluzeko sustarrak zabaltzen jarraitzen dabenak.

Ingenieritza ikasketak egin ostian Txileko Unibersidadian lanpostua lortu zenduan. Zela amaitzen dau batek NASAk?

Dana 1958xan hasi zan. NASAk, satelieten jarraipenerako estaziñoa ipini zeban Txilen. Bi gobernuak alkarlanian egin zeben proiektu hau. Unibersidadiak eta NASAk akordiuak egin zeben, lelenak ingenieruak ipiniko zittuan eta bigarrenak ekipamentuak. 1965ian lanpostu bat eskaini zosten eta 44 urte daroiadaz bertan.

Ze misino egin dira zuenian? Operazino espazial asko egin dozuez?

Guria araketa-sistemen zentru bat da, satelieten jarraipenian espezializatutako zentrua. Danera 350 espazio operazino baino gehixago egin doguz bertatik. Transbordadore espazialak bialdu di-

“Kalkulatzen da 6000 objektu erabiltezin darella orbitan”

ttugunazioarteko estazino espaziala konpontzera, Hubble teleskopiuak konpontzera, operazino espazialen jarraipena egin eta datuak jaso, munduan imaginak egin... Danetik. Radar bidezkuak, optikuak... Espazioko historiaren parte izan gara, ikusixaz beti zelan teknologiak aurrera egin daben.

Gizakixa ilargira heldu zala 40 urte bete dira. Jende askok ez dau sinisten hori pasatu zanik.

John Kennedyk erronka planteatu zebanian, oso jende gutxi konturatu zan zenbaterainokua izango zan. Espazio ontzi harek zeukan konputazino ahalmena, gaur eguneko edozein aparatu elektronikorena baino txikixagua zan. Nik orduan 28 urte nekazen eta neretako esperientzia izugarrixa izan zan.

Orduan zuzenian jaso zenduezen ilargittik zetozen seinaliak?

Gure estazinuak ilargittik zetozen seinale zuzenak jaso zittuan. Ilargiko espediziñoak ilargixan bertan instrumentu batzuk laga zittuan. Horrek instrumentuok seinalia bialtzen hasi eta segiduan, Txileko estazinuan jaso egin genduzen. Ilargixa

laga ostian, urtietan egon ziran aparatuak bertan funtzionatzen. Erretroreflektore bat eta espilu antzerako bat laga zittuen bertan.

Satelite bidezko kontrola existitzen da. Ze punturaino gare kontrolatuta?

Erresoluzinua gauza txikixak lurran azalian ikusteko ahalmena da. Bi erresoluzino mota dare: zibilak eta militarrek. Militarrena galdera ikur bat da. Ez dakigu ezer. Lehenenguari buruz badakiguz gauza batzuk. Badakigu, lurran inguruan satelite bat daguala orbitan, 800 km-ra. Satelite horrekin lurreko 70 cm-ko edozer ikusi leike.

“Lurretik 800 km-ko distantziatik, lurreko 70 cm-ko edozer ikusi leike”

Itxuria, 1989xan NASAk Txileko Unibersidadia laga zeban.

Bai, arrazoi teknologikuegaittik NASAk Txile laga zeban. Mundu guztian zihar dakez estaziñuak euren artian konektatuta eta ez zekan itxuria Txilean.

lekuan biharrik. Hola ba, instrumental dana laga zotsan Unibersidadiari. Oin Suediak daka araketa estaziñua eta mundu mailako saria. Orduetik, funtzino barrixak dakaz estazinuak.

Ze funtzino?

Satelitien imaginak lortzen doguz eta horretarako lehen konputadoria diseinatu genduan. Nekazarixeri, arrantzialeri, meatzarixeri baliogarri jakuzen tresnak. Bilaketa eta erreskatelanak be egitten doguz. Abioi batek istripua badauka, hurrengo 48 ordutan seinale bat bidaltzen dau, pultso digitalak, informaziño guztiakin. Gure estaziñuak, horrek seinaliok jasotzeko satelitiak daukaz eta 20 km-ko akatsakin topatzen dittu lekuok.

Espazioko ikerketak zaborra be sortzen dabe.


Bai, hala da. Edozein objetu zabor bihurtu leike. Kalkulatzen da 6.000 objetu erabiltezin darella orbitan. Badare akordio batzuk eginda zabor hori jasotzeko, posible da eta. AEBek badauke proiektu bat 10 cm baino haundixaguak diran objetueri aztarnia jarraitzeko. Hala eta be, atmosferiakin talka egitten daben objetu bat, milaka zatititan txikitzen da. Badare estazino batzuk baliogabetzen diranian “kanposatu orbitara” bialtzen dittuenak, lurrera jausteko arriskutik kanpo. Nazioarteko espazio estazinuan bertatik pasatzen diran gizakiak lagatzen daben zaborra batzen da; aparteko kontainer baten batu eta erre egitten dabe. Orduan, kontuz izar iheskorrekin! 🌌

KURRIKULUMA

Martin Arluziaga,
68 urte,
Santiago de Txile
Aita soraluzetarra.
NASAko langile ohia.
Espazioko korporazio suekoan teniente generala.
Ikasketak: Ingenieritza Elektronikoa.



Martinek lan egiten duen espazio behatokia, Txilen.





Edurne Orbea
Santiagoko bidean
ateratako argazkia

2009



Ane Ugalde eta Jasone Axpe
Italian, Pisa dorreari eusten!



Lorea de Castro
Suitzan, 2.296 metrora dagoen Laku Berdearen islada

UDA KO



Oihane Alberdi
Lore ederra eta udako koloreen bizitasuna



Enara Aguirre eta Dani Astarloa
Myanmar, kolorez betetako ilunabar ikusgarria

IRABAZILEA



Iñigo Unbetxebarria
Itzurungo (Zumaia)
hondartzako argiaren indarra



Pedri Lete
Sri Lankako magia

argazkiak



Eguzkiñe Aldazabal
Zurriolako desertua (Donostia)



Maialen Albeni
Bardeatako ilunabarra



Domentx Uzin
Finisterreko itsaso barearen lasaitasuna

Argazki gehiago: www.plaentxia.com



Ana Sebal
Huelvako "El Rocio"
herri ikusgarria



Alana Berraondo eta Iñaki Amibi
Cadaques, Gironako kostaldean dagoen
herri txiki eta zoragarria



Eider Varela
Kefren piramidea, Egipto



Ibai Arizaga
Kanadan, Taddusac ibaian bale artean



Lorea Gonzalez eta Goren
Tailandiako oporraldian egindako lagunak

ZER TRISTEN DOTSAZU?

1969ko uztailaren 19an gizakia ilargira heldu zen eta erronka honen 40. urteurrena ospatu da aurten. Hala ere, batzuk, Apollo XI ontzia ilargira inoiz heldu ez dela uste dute.

Gizakia ilargira heldu dala uste dozu?

MIREN EXPOSITO
Ikaslia



Nik baietz uste dot, nahiz eta guztiz frogatuta ez egon. Zaila da honen inguruan iritzi bat emotia, kontu hau nahiko urrin geratzen jaku eta. Batzuetan baina, holakuak sinistu egin bihar dira.

VICENTE ROMERO
Igeltserua



Ez, nire ustetan gizakia inoiz ez da ilargira heldu! Gehixago esango dotsut: nerretzat, honen inguruan esaten dan dana gizurra da. Egixa bazan, dagueko turismua be egingo zeben bertan eta jendia bertara juango zan oporretan.

ANGELA LARRAÑAGA
Etxekoandria



Esan, horixe esan ebena baina nikez dakit heldu dan edo ez. Danetik entzun dot, gizurra dala, egixa dala... Nik dakitena da, ez dakitela gizakia ilargira heldu dan edo ez, auskalo!

IKER IRAOLAGOITIA
Mekanikua



Nire ustez ez, gizakia ez da ilargira heldu. Bestela, gaur egun 40 urte beranduago dauken teknologia eta aparatu danekin berriro be bueltatuko ziran baina ez da hola izan! Dakigunez, behin bakarrik jua dirala esan dabe eta arrua da.

...pausu handia izan da gizakiarentzat. Gizakia handia da Maite, aurrerapen handiak egin ditugu! Lurreko izaki bizkorrenak gara!

Ezin dituzu etxeko arazoak konpondu eta ergelkeriengatik arduratzen zara gero!

Baina zer diozu? Zertaz ari zara?

Hobe esanda, lurreko izaki suntsitzailerak eta berekoienak gara.

KOMIKIXA



KM
Desing

Disainua eta Formena

Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaieta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebetia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

Bertsolari Txapelketa Nagusirako sarrerak

Iratxo goxodendan salgai daude dagoeneko 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala ikusteko sarrerak. Finala abenduaren 13an Barakaldoko BEC-en izango da eta autobusa antolatu da Soralezetik. Prezioak ondorengoak dira:

Sarrera: 26 euro

Bazkaria: 20 euro

Autobusa: 12 euro

Mesedetako Amaren Eguna trikiti doinuekin



Egun berezia izan zen hilaren 24ean Mesedeetako Amaren egotzan. "Bazkari edarra egin dogu, demasekua!" zioen nagusi batek baino gehiagok. Trikiti doinuekin dantzan jardun zuten gehienek, bisitariak lagun.

Negarrik Ez! eguna Gaztetxean

"Borrokak kentzen digu legeak ematen diguna" lemapean, Negarrik Ez! eguna antolatu dute Gaztetxean urriaren 3an.

Egitaraua:

14:00etan Bazkari herrikoia

19:00etan Erromeria:

XeroXieterekin

23:00etan kontzertuak:

Rotten Teenagers (Bergara)

Junzaitxetxera (Soraluze)

Muttikoen egunerako autobusa antolatu du Urrats Dantza Taldeak

Urriaren 11an Muttikoen eguna ospatuko da Lapurdiko Arrangoitzen eta bertara dantzara joateko aukera eskaini nahi die herritarrei Urrats Dantza Taldeak. Aurten hiru-garrenez joango dira soralezetarrak Lapurdiko muttikoen egunera. Iaz Galtzagorri txaranga

izan zen bertan eta orain bi urte Urratsekoak. Udaberrian muttikoen dantzak ikasteko ikastaroa antolatu zuen Urratsek eta izan zuen arrakasta dela eta, autobusa antolatu dute Arrangoitzera joateko. Urriaren 11an goizeko bederatzietan irtengo da Estaziotik.

Santa Ana jaietako muttikoen dantza

AUTOBUSEAN IZENA EMATEKO:

Pil-pileanean
943 75 13 04 edo
koordinazioa@pilpilean.com

Iratxo goxodendan.

IZENA EMATEKO EPEA:
urriaren 5a baino lehen.



Txurrukengo jaiak giro ederrean

Barixakuan hasi eta domekara arte luzatu ziren Txurruken auzoko jaiak. Mus eta tute txapelketan parte hartu zutenek sari potoloak eraman zituzten etxera, eta zapatuan, paella prestaketaren ondoren, herri bazkaria izan zen.

MABE
ILEAPAINDEGIA

ESTETIKA
SOLARIUM

Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

Kontulan
Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
Tifonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
GIPUZKOA


III. Marraskilo Tour eguraldiaren gainera

Hilaren 19an egin zen III. Marraskilo Tour mendi itzulia. Zapatuko eguraldi




nahasiarengatik askok etxean geratzeko erabakia hartu zuten. Azkenean, izena emadakoan erdia izan zen, 90 pertsona inguru, Marraskilo Tour mendi itzuliaren hirugarren edizioan parte hartu zuena. Hala ere, giro onean egin zituzten ibilaldiak zeuzkan 35 kilometroak.

Eskerrak ematen

Antolatzaileak pozik agertu dira izandako emaitzarekin eta eskerrak eman nahi dizkie laguntza lanetan ibili zirenei eta baita parte hartu zuten guztiei ere. 


Pelota taldeak jubenil eta kadeteak behar ditu

Herri arteko txapelketetan jokatzeko gazteak falta dira, kiroldegiko pilotariak deialdia egin dute kadete (14-15 urte) eta jubenil mailan (16-17)

gazteak bildu eta aipatutako txapelketan parte hartzeko. Informazio gehiago, **600 72 82 60** telefonoan (*Koldo*). 

Ukaldi Judo taldean izena emateko aukera

Soraluzeko Judo Taldean satrikula egiteko aukera dago oraindik eta dagoeneko 24 umek eman dute izena. Klaseak, martitzen eta eguenetan izaten dira, arratsaldeko 18:30etatik

19:30etara bitartean. Izena eman nahi duenak, **943 75 17 58** telefonora deitu behar du edo Ezoziko lokaletan, beheko solairuan dagoen lokalera jo. 

EMAITZAK

FUTBOLA

Sora (Erreg. Pref.)-Zestoa	1-3
Sora (Jub.)-Bergara	4-2
Urola K.E.-Sora (Kad.)	3-0
Sora (Erreg. Pref.)-Hamaika Bat	2-1
Eibartarrak-Sora (Jub.)	3-0
Soraluze (Kad.)-Elgoibar C.D. "B"	3-3

PELOTA

Salaregi - Patxi Ruiz	22
Retegi Bi - Laskurain	14
Ibai Perez - Laskurain	11
Urrutikoetxea - Argote	18
Capellan - Laskurain	18
Chafee - Mendizabal	13

AGENDA

FUTBOLA

Domeka 4, 16:30ean Ibarra
Aretxabaleta K.E. - Sora (Erreg.)

Zapateria 3, 11:00etan Estalan
Sora (Kad.) - Ikasberri

Domeka 4, 10:00etan Ibarra
Aretxabaleta K.E. - Sora (Jub.)

PELOTA

Urriaren 3an, Ereñon 17:00etan
Gonzalez - Beroiz
Retegi Bi - Laskurain

ARRANO
tabernia
etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua
etxera

JABIÉR ALBERDI HARATEGIA
ERRABAL KALEA 24
SORALUZE
T. 943 75 19 32
EUSKO LABEL
Euskal Okela

GAZTELUPE
taberna
tel: 943 75 20 81

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
t. 943 75 24 40
eguneroko
arraina eta
konjelatuak
Juan Mari arraindegia



ZORION AGURRAK



Maialen Romero
Irailaren 23an 2 urte!
Muxu handi-handi bat
familia guztiaren partez!



Jone Gallastegi Lete
Abuztuaren 2an 5 urte
Zorionak pottola,
etxekuen partez!



**Olaia Garaizabal
eta Miren Alonso**
Irailaren 27an eta irailaren 6an
42 eta 5 urte betetzen
dituzuelako! Muxu erraldoi bat
etxekoen partez!



**Juan Carlos Alonso
eta Goretti Alonso**
Urriak 7 eta urriak 1
48 eta 3 urte betetzen
dituzuelako! Zorionak
etxeko guztien partez!



Leire Etxabe
Irailaren 27xan 5 urte!
Zorionak Leire!!
Muxu handi pilo bat
etxeko guztien partez!



Irati Perez Claver
Urriaren 2an 8 urte!
Patxo handi-handi bat
etxekuen partez!



Zorionak Iraia!
Urriaren 1ean 6 urte!
Zorionak etxekoen partetik
eta patxo handi bat bereziki
Ikerren partez!



Eukén Mendia Hernaiz
Urriaren 2an urtebete!
Zorionak politta!
Muxu handi bat
etxekoen partez!



Oier Gonzalez Gallastegi
Urriaren 11an 6 urte!
Zorionak eta muxu pila bat
etxekoen partez!

jaiotakoak

MADDI SALABERRIA IRIONDO
YUMARA CORTES VALDES
ANE CAUTO PASENAU
GUZMAN MIÑO ARITZNEY



hildakoak

JUAN MARTIN IZAGIRRE ASEGINOLAZA
PEDRO ELIZBURU GORROTXATEGI
RUFINO MURGOITIA PILDAIN



LEHTAKETA

- **Zein ageri da argazki honetan?**



- **Saria:**
Txurruka jatetxean aurrez prestatutako
janarixetan 30 € gastatzeko bonua

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- **Irabazlea: Andoni Rico**
- **Arantxa Mendikute,**
Txurritxu goxodendakua zan pasa dan aleko
argazkixan agertzan zan soraluzetarra.



ARGAZKI ZAHARRA



SAN IGNAZIO BANDIA EDO PLAZENTZIAKO BANDIA

Argazki hau, 1959. urtekua da, oin dala 50 urte etaratakua. Cortijo izan zan argazkilarixa eta Ezoziko zelaixan etarata dago. San Ignazio bandia, Karlistak sortutakua da eta hasieran “La Margarita” moduan ezagutzen zan. Lehenengo urteeria Arrasatera egin zeben, 1913. urtian eta herrixetako jaixetan jotiagaittik egin ziran eza-gunak. 1963. urtian desegin zan bandia eta instrumentu danak dohaintzan emon ziran erietxe psikiatriko batera. ☞

Goiko ilaran: Simon Artolazabal, Tomas Placencia, Esteban Oregi, Jesus Galarraga, Angel Bolunburu “*Biribiltxo*”.

Erdiko ilaran: Rufino Zabaleta “*Galarraga*”, Miguel Larrañaga, Jesus Galarraga “*Malmero*”, Benigno Maiztegi, Arizaga, Sotero Atxotegi (?).

Beheko ilaran: Ernesto Lizarralde, Juan Aristi “*Tejerua*”, Claudio Onaindia, Jose Ramon Oregi, Ramon Arana, Alejandro Oregi, Ramon Bereicua.

NARCISA ELIZBURU GALLASTEGI

SENITARTEKOAK ESKERRAK
EMAN NAHI DIZKIZUEGU DOLU
ADIERAZPENENGATIK

“Udaberriarekin jaioa emakume umil eta goxoa bizitzeko zenuen grina eta gogoa iraileko lehenean itzali da zure hauspoa.

Guretzat plazerra izan da zurekin bizitako aroa ama, ahizpa eta amama; barruan gorderik degu zure maitasunaren beroa”

GIPUZKOA
NAFARROA
ASTURIAS

BIZKAIA
IPARRALDEA
GALIZIA

ARABA
KANTABRIA
SAGARDOA



EIBARREN
UNTZAGAN

Urriak 3,
zapatua

12.00-13.30
18.00-amaitu arte



Zergaitik eman duzu izena AEK euskaltegian?

Mari Fran Aizpuru
65 urte

Euskeraz freskotasuna hartzia nahi neban eta hau izan zan AEKn apuntatzera bultzatu ninduan arrazoi nagusixa. Nere garaixan derrigorrezkua zan gazteleraz egittia eta etxian euskeraz egitten genduan arren, gainontzekua gazteleraz. Erabileria lantzeko leku edarra da euskaltegixa!



Euskaltegiko izen emateko egunak:
Martitzena,
eguztana,
eguna

Ordua:
19:00etatik
20:00etara

Telefonoak:
Soraluze: 943 75 14 34
Eibar: 943 20 13 79

E-mailak:
Soraluze@aek.org
Eibar@aek.org



Maria Angeles Ariznabarreta
56 urte

Euskaltegixan bittartez nere euskara maila hobetu nahi neban, idazten ikasi eta berba egitten ondo moldatzeko. Euskaldun zaharra naiz baina erderaz ikastia tokatu jakun eta berbetan ondo dakitten arren, idaztia gehixago kostatzen jata. Euskaltegiko kidien artian lasaittasun osoz egitten dogu euskeraz.

ikasi euskara
eman izena

Azterketa ofizialak eta titulu homologatuak

aek-n
www.aek.org



MAKINA BEREZIAK
LERRO AUTOMATIKOAK
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA

SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.
Mendiola industrialdea, 14-5 • Tel. 943 75 18 91 • SORALUZE



Fresatzeko Teknologia



Mahai Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua
Mahai Finkoarekin



Zutabe Mugikorreko Fresatzeko Zentrua



SORALUCE, S.Coop.
Osintxu Auzoa
E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 76 90 76
Fax. +34 943 76 51 28
E-mail: soraluce@soraluce.com
www.soraluce.com

